1 (1

~~Eustakio Mendizabalen hil-mezan, (29-IX-73), Zokoa-ko elizan, bertako jaun errektorak egin mintzaldia.~~

Haurride maiteak,

Francoren polizak, tiroz bota du Euskaldun aurkalari bat. Bortzgarrena urte bat huntan.

Gerlan gerla-lege, dautazue erranen. Egia erratcko, legez, gure populua ez da gerlatik ateraia, ez baitute gure buruzagiek gerla bukatzeko antolaketarik nehoiz firmatu Franco jeneralarekin.

Orduan zer, dautazue iharduki(ren), zu, apez Eskualduna, gerlaren alde ote zira? Apez edo ez apez, dauzut ihardetsiko, gu Eskualdunak, lepo-zintzurreraino gerlaz aseak girela. Ez ginen gu gerlari lotu. Bainan Espainol jeneral bat zen oldartu bere legezko gobernuari. Eta hura zitzaikun gure lurretan

sartu, laguntzaile zituela Marokano, Italiano eta Aleman soldado taldeak. Gerla bizkar gainerat erori zitzaikun eta, oraino ere, hor daukagu. Alabainan etsaia dugu gaur oraino agintari, ezin-ahalak egiten dituela, gu elgarren artean nahasteko, gure eskualdungoa baztertzeko eta itotzeko.

~~Egundainotik~~ Lehen gerlaren etsai ginen. Gaur ere, berdin. Guk nahi duguna da: Bakea. Ahatik, egiazko ba-kerik ez ditake, ez baditugu haren oinarritzat hartzen askatasuna, zuzentasuna, egia, anaitasuna.

Askatasuna diogularik, erran nahi dugu gizonen eta populuen askatasuna.

Gizon eta jendaia bakotxak baditu, jainkoaren ganik ukanak, bere dohain bereziak. Beren egitekoa dute dohain horien fruituratzea.

Gaur ageri denaz, zapalkundean bizi girelakotz, ez Eskualdun norberak, ez eta ere eskualdun jendaiak, ez dezake bere nortasuna loratu.

Gure oraiko aita saindua mintzatu zen lehen O.N.V.-ko biltzar-nausian. Goratu zituen "Gizon ~~Gizon~~ Eskubi-deak", erranez, honek zirela aberas-tasun batzu, gaurko gizonak emeki beretuak, hainitz pairamenen bidez. Eskubide horietarik aipa ditzagun hiru: Gizonak gogoan duenaren erraiteko eskubidea, nahi duenarekin elgartzekoa eta ~~boz~~ bozkatzez bere ayintarien aukeratzekoa:

Hiru eskubide horien gozamena aurkitzen da, guti gora-behera, Frantzian, bainan holakorik ez dute onhartzen Espainian.

Eskubide horien lortzeko borrokan ari diren Eskualdunek, ez dute guduka egiten bakarrik beren alde, bainan ere

eskubide horietaz jabetuak dauden gizon guzien alde.

Gutarik bakotxa girenaz geroz populu bateko haur, gure eskubide-ak eta gure populuarenak elgarri tinki lotuak dira. Hortakotz ez ditake Eskualdun seme bat libro izan, berea duen ~~eskual~~ euskal populua ez bada libro. Iritzi hau, argi eta garbi argitaratzen du "Bakea lurretan" titratu Elizako gutun-nausiak, diolarik: "Jendaia bakotxari zor zaizkola laguntza eta aisetasun guziak, bere bizimena eta zabal-kuntza ditzan nasaiki!"

Gaur ikusten denaz, Madri-leko ala Pariseko gobernuek, nahiz modu desberdinez, giltzapean beren lotua daukate, ~~eskualdun~~ euskaldun populua, berezki politika eta ekonomia sailetan, alor hauketan ez baitau-kute uzten deus jabetasunik.

Ez ditake bakerik askatasunik gabe,
ez eta ere zuzentasunik gabe. Aipatuko
ditut zuzentasunaren bi adar:
Gizarteari doakion zuzentasuna eta
auzitegiei doakotena.

Frantzian, halaxe-holaxe, gizonen
arteko zuzentasuna apailatzen dute,
indar bertzulkoak baitira, elgarren
aurka borroka ari diren diru-ja-
-been eta langileen eskualdeak.

Espainian ez da holakorik. Hango
"papo handiak" dira, nola moltsa
ala gobernuaren jabe eta "azpikoek"
ez dezakete "amen" bertzerik erran,
gainekoak "beren alde" muntatu legeeri.

Eta orai aipa ditzagun auzite-
-giak. Gobernua nausiago eta nausi-
-keria geiagoz, gaztigatzen ditu,
berari oldartzen zaizkonak. Bada-
-kigu nola, gu Euskaldunak (eta
gorekin zen Euskalerio) zoin
gaizki berrikitan erabili

gartuen frantses gobernuak, bere auzitegien bidez ere, bainan bereziki bere enplegatzeko dituen esku-makilen bidez. Ez zen hor zuzentasunik, buruzagi batzuen burukeria baizik. Hortakotz (eta beharrez) zen oldartu jendea hemen gaindi, gose greberi lotuz eta karrikarat jauziz. ~~Gezo~~ Geroztik iduri luke frantses gobernuak, lehunkiago jokatzeko nahikundea dukeela.

Espainian aldiz, gelditu gabe, beren lan hitsari ari dira ~~Consejo de Guerra~~, Supremo, orden publiko eta gainerateko sasi-auzitegiak. Alabaina, azken garai hautan, aboka-doak multzoka ~~[illegible]~~ dira oldartzen hango gobernuaren molde lotsagarri horien aurka - Ohore abokado horieri! Jesusen sailari dira jarraikitzen, hurak erran baitu: Dohatsu zuzentasun~~[illegible]~~ gose eta egarri direnak

Hau dela-eta, meza huntan othoitz egiten dugu zuzengabekeriaz zapal-dunak diren guziantzat; ~~Presondegi~~ Espetxetako ala polizteietako, sasi gudari ala ihesleri, amandaz ala bertzelaz joak direnentzat eta hoien familientzat.

Ez da bakerik azkatasunik gabe. Ez da bakerik zuzentasunik, ez eta egia-rik gabe. Egia da indarraren ~~a~~ oinarri segur bakarra.

Badakigu gaurko egunean egia dutela beren gisarat lantzen, aldatzen eta berdin sortzen, lantegi berezi batzuetan: Radio tele-bista-etxe, berri-biltegi, kazeta moldatzei eta holako lekutan. Gobernua otsoago eta gezurtiago izaten da berrien zabaltzeko. Frantzian baditugu pixka bat batzuen ala bertzeen ikusbiden jakiteko ahalmena, bainan holakorik ez dute Espainolek. Gutiz ~~gehi~~ gehienek ~~egi~~ egi sakratutzat

~~ezt~~ hartzen dituzte ~~gobernuak~~,
gobernuaren iturri bakarretik entzuten
dituztenak.

Ahalik zorionez badira, berri zabal-
-tzaleetan ere, egiari jarraikitzen ~~diren~~
direnak, horrelakotz beren bizipidea
galduko badute ere. Ohore egiaren
zerbitzari horieri! Jesusek erran
du: "Ni etorri naiz mundu huntarat,
huni egiaren alde, nere lekukota-
-suna ekartzeko" Egia zabaltzaileek,
Jesusi diote esku emaiten.

Eustakio dela-ta, hameka ostiko
eman diozkate egiari, mugaz
bertzaldeko berriketariek: "Terrorista-
bat" zela, "mandil bat", "~~gizon~~ "gizon
biltzale bat", "diru gose bat",
"barnez galdu bat" eta holako
goxokeriak dituzte atera gure
Eustakioz.

Nik ongi ezagutu dut Eustakio
eta hartaz diotana da, zela bihotz

onetso gizon bat, osoki bertzentzat
bizi zena... Bihotz onekoa ba. Zonbat
ez zituen maite bere etxekoak, haurrak,
jende apalak! Pau-en kondenatu
zutelarik, nerone ~~zien~~ nintzen bere
abokado. Jujeari erran nion orroit
zadien Eustakio hemendik urrundiz,
bere ezkont-laguna eta haurrak
zituela bizitze latzgarri baterat
kondenatzen. Nere eleak entzutean,
Eustakio lipalsa nigarrez hasi zen.

Eustakiok ez zuen gizon
bortitz-harroen itxurarik ere. Baza-
-kien, bere bertze lagun batzuek
dakiten bezala, espainol poliziak
agintza zuela, bera ilzus ordu, han
berean garbitzeko. Nabaitzen zuen
heriotzea zabilala inguruka bere
itzulian. Bere orduz, pertsulari
ere baitzen, benikitan pertsu hunkigarri batzu
eginak ~~egin~~ zituen bere heriotzeaz eta
~~honek ezarri~~ emanak euskaldun emazte

abeslari izatiyu bati, eskatuz
kanta ~~eg~~ zitzan, berak moldatuko
zuen doñu batean.

Jakinik ere bera hilen zutela,
berak ez zuen nehor hil nahi.
Polizia ondotik tiroka zuelarik ~~ere~~,
berak airean husten zuen bere
piztola.

Hain zen denekilakoa, ~~handinaiko~~
handinaikeriarik gabea, deere
eyitekoari zintzoki eta osoki emana,
nun hainitz adiskide baitzituen eta
heien artean apez zonbait ere.

Nola beraz, dantzaue galdeginen,
laitake, zanpalari hilaksatzea, holako
gizon bat? Badakigu denek, gure e
~~y~~ kristau-erakaspenak debekatzen
dauzkula zanpakseta jokoak.
Bainan ~~ez~~ ~~dut~~ erran-gaiten ez dela
gauza bera edonor zanpatzea eta
zanpatzaleari oldartzea.

Frantzian dugun demokrazia

gudulza egin ditake,
pixkan esker, ~~gudukat~~, hein batean
~~egin dit~~ segurik, bakezko jokabidez.
Baina, Espainako gobernua barta
"dena ni eta ni bakarrik", harekin
duzun aukera bakarra da: Apal
burua edo utzi kargua! Bertze
askoren ondotik, Euskaldunak garbiki ikusi
zuen beharko zuela uko egin bere
sailari edo hartan gogortu... Uko
egitea ez ote zen salduketa! Orduan
hartu zuen erabakia bere hartan
gogortzeko. Horra nola eta zer
gatik, gizon goxo, maltzagarri horrek
armatu zituen bere beso eta gogo-
menak, zapaldua dagon bere
populua zerbitzatzeko. Horren kondena-
tzea litake, (lehen eta gaur), ~~oldartu~~
beren aberria askatzeko, oldartu
eta oldartzen diren guzien kondena-
-tzea.

Holakoa zen Euskaldun eta holakoa
agertuko da gure ~~Eskual~~ Euskal Kondairan.

Eta ez dute orroitzapen hori zikinduko bere gurutzearen bidean eta gorputz inguruan, berzaren beltzten ari izan diren mingaina okaztagarriek.

Gurutzeaz mintzatzean, ~~zuek~~ Euskaldun ~~Ezkualdun~~ emakumeak heldu zaizkit burura. Zuek, aurkakeren ezkont-lagunak, zuek gutarteko edozoin emazte, nork aski goretsi zuen egoera, hor zaudeztelarik zutik gurutzearen oinetan, gure gizonak dituztzuela sosteitzen eta laguntzen! Ukhar-azue gure erres-petua. Luzarat zuek duzue salbatuko edo galduko gure Euskal-Herria!

Eustakio joan zauku, baina hemen geratzen zauku harena zen ~~bo~~ eta gurea den egitekoa.

~~Segur naiz berak ez erranago bezala gaur hemen nik erranen dutana, berak, bai eta ere kanbi bordin munts~~

Legez nauz gure hil guzien izenean mintzatzea; ez bakarrik Eustakio eta bernbitan ~~hil diren~~ tiroz hila dituzten bere laguneen izenean; baina ere Hogoita-Amaseiko gerlan eta geroztik Euskadirentzat odola ixuri duten guzien izenean — bai denen ~~izenean mintzat~~ mintzoa dutala adiarazten, dei eginez ~~Eskualdun~~ Euskaldun guzieri "bat" egin dezagun. ~~Bat, Euskal-Herriko~~ "Bat", Euskal-Herria ~~batzeko~~, egun batez, bateratzeko!... "Bat", Euskal-Herria, zor zaion ~~Herria~~ ~~da eta~~ gora mailerat altxatzeko!

Euskal-jendea, aberats haiz jainkoak eman daukan bizi-leku ederraz, aberats atzokoaz, aberats gaurkoaz, libre-adi estekan hauteraten gatetarik ... Horiek ~~dituk giltza~~ zankatek giltzapean gure etorkizun ederra; munduari, eskubide duen bezala, zabaldu behar

gimioken etorkizun aberatsgarria!
Euskal-jendea, orai da garaia.
Galerna uzta gainean dugu, sua etxeari lotua. Ihardok diezoguten ~~eskuna elg~~ gure eskuak elgartuz. Ixil ditela gure arteko aharra eta sumindurak... Gure arteko ~~nahasketa~~ nahasketak, beti izan ~~badira~~ bakunbadira lotsagarri, gaur lirazke gure Euskal-Herri maitearen hil eta ehortzigarri... Bai, "~~bat~~" ~~eo~~ elgartu gaiten!.. Hori da gure hilen mezua.

Amen